



Hirukide

DECLARADA
ASOCIACIÓN DE
UTILIDAD PÚBLICA

Jaun Agurgarria:

Honen bidez, **Hirukideren izenean (Kide Ugariko Familien Elkarte Euskadiko Federazioa)**, pasa den urriaren 24an Bilbon eta "Seme-alabak, hori da etorkizuna!" lelopean burutu genuen **Kide Ugariko Familien IV. Euskal Kongresuan** ateratako ondorioak eta prentsan zein irratietan izandako oihartzuna jasotzen dituen txostena helarazi nahi dizugu.

Aipatu ekitaldiak erabateko arrakasta izan zuen, bai komunikabideen aldetik izandako estalduragatik, bai bertaratu zen familia kopuruagatik; eta horri esker, familia askoren eskakizunei erantzun ahal izan genien, eskatzen zigitelako kongresuan **seme-alabentzako balioen heziketa** bezalako gai garrantzitsu eta mamitsu bat jorratu genezala, are gehiago ahalegin hitza ekiditen den gizarte batean gaudenean, errespetua, elkartasuna edo autoritatea ere gero eta gutxiago ageri diren honetan.

Hori dela-eta, eskertuko genizuke Federazioa osatzen duten Guraso Elkarte desberdinei aipatu Kongresuaren ondorio eta aldarrikapen nagusien berri emango bazenie.

Besterik gabe, behar dezakezun edozein argibidetarako prest gauzkazu.

Agur bero bat,

Estimado Sr.:

El motivo de la presente es adjuntarle en nombre de la **Federación de Asociaciones de Familias Numerosas de Euskadi, Hirukide**, un dossier con las principales conclusiones y la repercusión mediática que tuvo nuestro **IV Congreso Vasco de Familias Numerosas** celebrado el pasado 24 de Octubre en Bilbao bajo el título "Hijos, vaya futuro".

Dicho evento ha sido todo un éxito tanto en cobertura mediática como en número de familias asistentes; y gracias al mismo, hemos podido dar respuesta a la demanda de muchísimas familias que nos solicitaban tratar un tema tan importante e imprescindible como es la **educación en valores de los hijos/as**, más aún cuando nos encontramos en una sociedad en la que se evita la palabra esfuerzo, donde el respeto, la solidaridad o incluso la autoridad brillan cada vez más por su ausencia.

Por dicho motivo, le agradeceríamos que diera a conocer entre las distintas AMPAS que integran la Federación, las principales conclusiones y reivindicaciones de dicho congreso.

Sin otro particular, quedamos a su entera disposición.

Un cordial saludo,

Gasteizen, 2009ko abenduaren 14an

Natalia Diez-Caballero Alonso
Hirukideko Zuzendari Exekutiboa



ONDORIOAK

Haur eta nerabeen hezkuntzaren etorkizunari benetako itxaropenarekin aurre egiteko XXI. mendeko eskolek eta familiek duten erronka garrantzitsuenetariko bat da oraindik hezkuntza-jarduera funtsean gizatiartze lan gisa ulertzea eta garatzea. **Heztea gizatiartzea da eta hezitzaile, guraso eta irakasleok**, benetan —eta guztiaren gaineratik— **gizatasun sortzaileak** gara.

Lan hau **bereziki garrantzitsua** eta beharrezkoa da **egun**, aintzat hartuta haurrak, neurri handi batean, "denak balio duen" gizartean bizitzera behartuta daudela, gizarte horretan oso finkatuta daudela irabazteko asmoaren eta kontsumoaren legeak, eta hauen arabera eraginkortasuna, errentagarritasuna, dirua, edukitzea eta erostea balio goren gisa gorai patzen direla.

Haurrak eta nerabeak hezkuntza-ikuspuntutik gizatiartzeko, **euren gaitasun gizatiar sakonena garatu behar dugu haiengan**, eta lagundu **balio positibo eta demokratikoetan** oinarrituriko formulak bilatzen, sortzen eta garatzen; justizia, elkartasuna, berdintasuna, askatasuna, zintotasuna, erantzukizuna, begirunea edo esker ona bezalako balioak erakutsita. Lagundu egin behar diegu deskubritzen balio horiek beharrezkoak direla euren existentzia zentzuz beteko duen bizitza proiektua eraikitzeko.

2. Pertsona baten heziketan eragina duten faktoreen artean, **familiak** pisu gehien izaten jarraitzen du, baina hala izan dadin **ondo burutu behar du bere misioa**; bestela, eragin negatiboa izango du hezkuntza-lana baztertzeagatik edo bere jokabidearen eragin negatiboaren ondorioz.

Horretarako, beharrezkoa da maitasunez eta komunikazioz beteriko familia girotik abiatzea. **Heziketa oro maitasunean, konfiantzan eta zentzu positiboan oinarritu behar da**. Ezbairik gabe, pertsona orok, baloratuta sentitzeko eta autoestimua egokia izateko, garapen psiko-afektibo egokia behar du, familiak lagunduta eta atxikimenduzko figura nagusiek, gurasoek, hain zuzen, zuzenduta. **Beharrezkoa da irakaskuntza asertibo eta positiboa**, gure seme-alabak gai izan daitezen erakusten diegun hori jasotzeko eta aplikatzeko beharrezkoa den segurtasun pertsonala eskuratzeko. Famili giro horretatik, konfiantza eta komunikazioarekin, geure seme-alabek erantzukizuna eta irizpen pertsonala eskuratu ahal izango dituzte, beharrezkoak euren askatasuna garatzeko. Zoriontsuak izan daitezen, denok helburu duguna, babestuta, seguru eta, batik bat, maitatuta sentitu behar dira.

Gure seme-alabak tokatu zaien mundura egokitzeko gai izatea lortu behar dugu, beharrezko trebetasunak eta prestakuntza emanda. Horretarako, **nahitaezkoa da ikas dezaten badaudela bete beharrezko arau eta jarraibide batzuk, eta horiek aztura bihurtzea**.

Muga eta errutina batzuk ezarri behar dira. Mugak dauzkan umea seguru sentituko da, nola jardun behar duen ulertzeko zer egin dezakeen eta zer ez ikasi behar duelako. Modurik eraginkorrena da jokabide bakoitzaren ondorioak (positiboak zein negatiboak) aplikatzerakoan irmoak izatea eta errutina eta azturak ezartzea.

Horretarako, **beharrezkoa da berriz familia-eskola binomioari heltzea**, berau gabe frogatzen ari baita ezinezkoa dela umeengan jokabidezko jarraibide egonkor eta egokiak lortzea. Gurasoek barneratu behar dugu umeek funtzionamendu arauak eta mugak familia barruan ikasi eta barneratu behar dituztela eta, era berean, irakasleei beharrezko autoritate moralak eman behar diegula ikastetxeetan haiek ezartzen jarrai dezaten. Era berean, hezitzaileek zaindu egin behar dute gurasoekiko komunikazio etengabea eta erraza egotea, ikasle bakoitzaren berezitasunak jarraitzeko eta kasu bakoitzean hezteko modurik onena ikusteko.

4. Gurasoek gero eta maniobra marjina txikiagoa dugu gure seme-alaben askatasuna guraso garen aldeetik dugun erantzukizunarekin uztartzerakoan, bai **telebistan**, bai **Interneten** eskura ditzaketen edukien aurrean. Kasu askotan agintarien babesik gabe aurkitzen gara, **gutxieneko giza balioak ere baztertu** eta pertsonaren duintasuna desfiguratu dituzten **edukiak** gure seme-alaben aurrean etengabe egotea **ahalbidetzen** baitute. Bai hedabide eta web-guneetako arduradunek, bai agintariak eurek, hausnartu egin behar du lukete egungo haur eta gazteentzat nahi dituzten giza erreferenteei buruz eta gizalegezko balioen ezarpenean duten erantzukizunari buruz, eta ondoren neurriak hartu.

Kanpo eragile hauek gero eta protagonismo handiagoa dute, gero eta guraso gehiagok seme-alabei eskaintzen dieten denbora urria dela-eta; hein handi batean **lanaldia eta familia bizitza adiskidetzeko aukera ezagatik**. Enpresari eta sindikatuek zein agintariak adiskidetzeko handiagoa lortzeko erronka barneratu behar dute, ordutegiak malguago eta arrazionalago eginez, gurasoek geure seme-alabei kalitatezko denbora gehiago eskaini ahal izateko.

ALDARRIKAPENAK

1. Hedabideei

Programazioa bereziki zaintzea haur eta famili ordutegietan. Ordutegi hauen barruan haurrentzat ezegokiak diren programak edo publizitatea botatzen dira, eta urraketa horien maiztasuna kateen araberakoa izaten da. Ez-betetze hau bereziki larria da medio publikoak direnean. Halaber, eduki ezegokiak ekidin ez ezik, euren protagonismoa eta eragina barneratu eta telebistako produktuen kalitatea zein giza balio nagusien sutapena aktiboki egikaritu ere egin behar dituzte.



3. Administrazio Publikoari

Urtero, ikasturte hasierarekin, familiok ikusten dugu nola egiten duen gora eskola-materialaren eta gure seme-alabak eskolatzerako beharrezkoak diren bestelako zerbitzuen kostuak, eta seme-alaba gehiago dituzten familiek gero eta zailagoa dute horiei aurre egitea. Familiei Laguntzeko Lege berriak ezartzen du seme-alabak dituen edozein ama edo aitak baliabide ekonomiko eta zerbitzu nahikoak izan behar dituela haiek zaintzeko eta mantentzeko. Horrela, hiru lurraldeetan gastu horri aurre egiterakoan erabateko harmoniarik eta justiziarik ez dagoelako, PFGZn seme-alabako kenkariak hedatzea eta errealitateari egokitzea eskatzen dugu, gastu hauei eta beste batzuei aurre egin ahal izateko.



2. Gizarte eragileei

Lanaldia eta familia adiskidetzeari, nahitaezkoa seme-alaben heziketa egokirako, betetzeko dagoen ikasgaia da oraindik eta gizarte eragile ezberdinek, erakunde eta ikastetxeekin batera, aurre egin behar diote. Adiskidetzeari bultzatu eta lan- eta eskola-egutegi eta ordutegiak bateratuko dituzten neurriak ezartzen jarraitu behar da, ahalik eta gehien saihestuta adin txikiek zenbait unetan senti dezaketen bakartasun sententzia. Lau hilabete baino gehiagoko oporrak, arratsalde libreak eta gero eta lehenago bukatzen diren eskola-egunak izanda, ezin dugu benetako adiskidetzeari aurre egin, lan-ordutegiak malgutzeko edo bateratzeko bideak ezartzen ez diren bitartean.



4. Familia eta ikastetxeei

Guztiz beharrezkoa da familia-eskola binomioa berreskuratzea gure seme-alabentzat heziketa osoa eta egokia lortzeko. Gurasook barneratu egin behar dugu umeei funtzionamendu-arauak eta mugak familia barruan ikasi eta barneratu egin behar dituztela eta, era berean, irakasleei beharrezko autoritate moralak eman behar diegula ikastetxeetan horiek ezartzen jarrai dezaten. Era berean, irakasleriak familiekiko loturak eta elkarlana hobetzea eskatzen dugu; tutore-lana sendotzea, guraso eskolak edo prestakuntzarako bestelako bideak eskaintzea eta komunikazio-bideak ezartzea, besteak beste, dira hartu beharreko neurrietariko batzuk.